297

2009ko
martxoaren 6a

TOLOSALDEKO HERRI ALDIZKARIA

# Galtzaundi



**ESKUALDEA:** Norma Vazquez-en hitzaldiaren entresaka >>> Amezketako irakurketa taldea
**ETXEBIZITZA GEHIGARRIA:** Artikuluak, etxerako ideiak, etab **INAUTERIA 09:** Argazkirik onenak
**KULTUR ORRIA:** Galtzaundiren martxoko kultur eskaintza

**ELKARRIZKETA:** Floren Probanza marinela



## Artearen erakustoki berriak

**ETXEBIZITZA GEHIGARRIA**

# berogas
langile elkartea, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxekoak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www. berogas.com

vegasa

# NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 587

AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

Mª Teresa de Olabarria Ruiz
OPTOMETRISTA



IKUSMEN TERAPIA
- Estrabismoak
- Anbliopiak (Begi alferra)
- Ikaste zailtasuna
- Garapeneko arazoak
- Garezur-entzefaliko traumatismoek eragindako arazoak

AUDIOTRAINING
- Hiperaktibitatearen murrizpena
- Ansietatearen murrizpena
- Animoaren hobekuntza

San Francisco 11, 1º ezk. TOLOSA
e-maila:teresaola@euskalnet.net
HITZORDUA - 652 773 813

Mertxe Arregui



*IRITZIAREN*
## LEIHOA

- Txomin Garmendia: Euskadiko basoak
- Jon Azpiroz: Udaberria

*4-5 orrialdeak*

*NORMALIZAZIO*
## ATALA

- Abizenak euskarazko grafiara aldatzeko aukera



*6. orrialdea*

*ESKUALDEKO*
## ALBISTEAK

- Norma Vazquez, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean begiak irekitzeko gakoak
- Amezketako irakurketa taldeak bigarren urtea hasi du.

*10-12 orrialdeak*

# Galtzaundi 297

2009ko martxoaren 6a

Iritziaren Leihoa: Jon Azpiroz eta Txomin Garmendia..................4-5
Eskualdeko albisteak:
Norma Vazquez-en hitzaldiaren kronika.......................10-11
Amezketako irakurketa taldea........................................12
Inauteriak 09 iruditan .................................................17-19

## ERREPORTAIA
Kafea eta artea



*7-9 orrialdeak*

## ELKARRIZKETA

*"Belauntzien nabigazioak liluratu egin ninduen. Naturaren indarraz, beste ezer gabe, noranahi joan zaitezke, inolako gas edo zarata kutsadurarik bota gabe. Ni beti belauntzietan ibiltzen naiz. Haizeak eramaten zaituen aldera joatea, besterik gabe, dut gogoko. Ez dut lasterketetan ibiltzeko inolako asmorik".*

- Floren Probanza Marinela

*13-15. orrialdea*

galtzaundi
euskara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Leire Zubeldia.
Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea Azpeitia.
Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkartea, Amaia Goikoetxea Orbegozo.
Publizitatea: Angela Alamo.
Banatzaileak: Oihana Sanchez, Juankar Arregi.
Idazkaria: Edurne Mendia.
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Jon Ander Ubeda eta Maddi Trutxuelo.
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale.
Lege gordailua: SS-906/91.
Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai euskarari
zerbitzua eta lana euskaraz

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



# UDABERRIA

**JON AZPIROTZ**
Bedaioko Artubi Elkarteko kidea

*" Udaberriak naturaren esnatzea dakar eta landa inguru zein mendian, aktibitate handia somatuko da hurrengo asteetan."*

Aurten Tolosako Inauterietan sekulako jendetza ibili da, agian Tolosako Inauteriak ospetsuak direlako, edo agian, jendeak kalera irtetzeko beharra zuelako. Bietatik seguruena. Krisia eta krisia entzuten den honetan, jendeak, legez den bezala, gogotsu ekin dio, ilusioz eta irudimenaz. Jende gehiago ibili omen da kalean nahiz eta obra erraldoi zein beharrezkoak hiriaren erdigunea harturik daukan.

Tolosako Inauteriak gero eta gustokoak ditut. Ez naiz Inauterizalea, baina honetan ere ikusiz eta ikasiz zaletu egiten zarela uste dut. Inauteri hauen magia herrira hurbiltzean somatzen da, lehenik kotxe ilarak, gero mozorro, bat, bi eta hiru, kolore gorri, urdin hori, berde… Mozorro sinpleak eta asko landutakoak, eta bat-batean, jendetza kalean gora eta kalean behera. Ederrena parte hartzaileen desberdintasunak dira. Bakarkakoak, familiak eta koadrilak, zaharrak eta haurrak, gizon eta emakumeak.

Inauteriak amaitu dira. Inauteriak neretzako neguaren bukaera dakar eta aurten zergatik ez? Aleluia. Dagoeneko nekaturik nago, nahiz eta urtaro hau bere neurrian gustokoa izan. Urritik otsailera, euria eta euria izan dugu eta asperturik nago. Euria, haize erauntsiak, elurra, hotza, izotza eta lainoa. Andaluziar batek esaten duen bezala, nola eusten diozue animoari? Hori tristura! Eguzki printzik gabe. Bai, aurten egia esan bai lizundurik gaudela dirudi.

Urtaro honi gutxi falta zaio, eta espero dut jada euriak bukatzear egongo direla. Garaia da. Zuhaitzak eta loreak hasi dira neguaren bukaeran esnatzen. Eguzkiak lagunduz gero, ederrak jarriko dira zelai, baso eta mendiak. Udaberriak naturaren esnatzea dakar eta landa inguru zein mendian, aktibitate handia somatuko da hurrengo asteetan.

Hegazti desberdinen kantuak entzutea, errekara hurbiltzea, belar freskoan esertzea, zuhaitzen loratzeak ikustea bat-bateko uneak izango dira.

Haurrak mendira eta basoetara hurbilduz gero, sentsazio guzti hauen jabe egingo dira, azkarrak eta abilak direlako. Naturaren garrantziaz eta orekaz jabetuz gero, errespetuz jokatzeko eta zaintzeko ardura piztuko zaie eta hori mesedegarri izango da, baina Inauterietan gertatzen den bezala horretarako ikusiz, ikasiz eta ulertuaz parte hartu egin behar da. ■

# GAI LIBREAN

## HIRUKIDEKO IKASLEEK JARRITAKO BERTSOAK

***Gaia: Simpson familia***
***Doinua: O baserritxo***

*Matt Groenginek sortu zituen*
*pertsonai hori horiak*
*eta guztioi heldu zaizkigu*
*pertsonaien historiak.*
*Springfield herrin gordeta daude*
*Simpsondarren memoriak,*
*beren bizitza dena han dago*
*lekuko dira irudiak.*

*Bart,Hommer,Lisa,Maggie eta Margek*
*famili bat dute egin*
*Bart ta Bort dira berdin xamarrak*
*ibiltzen dira skatekin.*
*Eta Springfielden bizitzen dira*
*beraien herritarrekin*
*eta oso gaizki konpontzen dira*
*bi herriak elkarrekin.*

*Hommer eta Marge dira pareja*
*eta hiru seme dituzte*
*eta Bart, Lisa eta Maggie*
*hizen horiek dauzkate.*
*Bartek dauzka hamar urte ta bere*
*lagunek beste hainbeste,*
*gaiztakeriak egiten beti*
*nonahi aurkitu daitezke.*

*Simpsonak dira familia bat*
*Springfielden bizi dira*
*Hommer aita da, lanera doa*
*zentraleko lantokira.*
*Afaldu ondoren joaten dira*
*Moeren taberna txikira,*
*telebistatik mundu guztia*
*egoten zaie begira.*

***Gaia: Txisteak***
***Doinua: Erniopean bada herri bat***

*Behin ume batek amari esan*
*bi notizi zituela*
*bat oso oso albiste ona*
*ta bestea txarra zela.*
*Eskolan asko ikasi eta*
*maten hamar bat zuela*
*ta berri txarra lehenengo hori*
*gezur borobila dela.*

*Behin bi lagunek topo egin eta*
*bat zegoen kezkatia:*
*Sorian inoiz izan ez arren*
*nago soriasiz josia.*
*Eta besteak erantzun zion:*
*nerea ere da handia,*
*Burgosen inoiz izan ez arren*
*begira ze odolkia.*

*Bi azeituna zeuden mendian*
*ondo pasatzeko asmoz,*
*estropozo egin zuen batek ta*
*erori egin zen lurra joz,*
*ta esan zuen hezurra hautsi dut*
*berdetuta bere sustoz,*
*eta besteak nola ba nola*
*antxoaz beteta gatoz.*

*Joni buruhandi deitu eskolan*
*etxera triste joan zen*
*amak agindu dendara joanda*
*patata erosi hain zuzen.*
*Ekarri ehun kilo ta Jonek esan*
*zakuan ez da kabitzen*
*seme hartzazu txapela eta*
*ea hor kabitzen diren.*



# EUSKADIKO BASOAK

**TXOMIN GARMENDIA**
Bertsolaria

Gure artean onako berriketa auek maiz samar erabilliko ditugu: “Periodikoak, gezurra besterik ekartzen al ditek-ba...? Eskelak, oiek bai, oiek egiak”. Neronek ere, antzeko arrazoiak entzun bear izaten ditudala aitortu bearrean nago. Nere erantzuna au izaten da: “Egia bakarrik gauza urria det mutillak...”.

Gure arteko berriketa oietan nolabaiteko asko da noski, baiña dana gezurra ez dala ere, aitortu bearrean gaude. Adibidez, otsaillaren 16ko D.V. egunerokoan Euskadiko zugaitz eta basoari buruz idazlan bat zetorren eta aberastasun aundiak genduzkala zion. Euskaldun bakoitzeko, 250 arbol edo zugaitz omen daude Euskadin; amar ondozko botatzen diraneko berrogeita amar landatzen omen dira; 181 milloi zugaitzetik gora omen dauzkagu, 50 milloi metro kubiko material dauzkatela eta abar.

Goazen arira, Euskadi esaten danean iru probintziak esan naiko dira noski, Araba eta Bizkaia ez ditut geiegi ezagutzen alde orretatik, baiña gure Gipuzkoan zer aberastasun daukagu? Gaztaiñak igartu ziran, zumarrak ere bai, aritzak, pagoak eta beste asko ere, ez daukate garai bateko indarrik eta zaletasunik. Piñuaren zaletasunak ere bukatu ziran, adibidez, piñudiak botata geiago ezer landatu gabe sail asko aurkitu litezke; zer esan nai du orrek? Nun dira garai bateko arizti, pagadi eta gaztaiñadi zoragarri aiek?

Norteko trena Irundik Madrilera 1872 garren urtean jarri zan eta 608 kilometro daudenez, eta liburu zar batean irakurri dedanez, 1.013.333 trabiesa bear izan ziran; trabiesa oiek ariz-egurrakin egiñak izaten ziran eta gaur Euskadiko ariztiakin zenbat kilometrotan jarriko ote litzake trena? Eskerrak egurraren ordez beste material batzuk sortu zaizkigula.

Begiratu dezagun eleizetako, konbentutako eta gure basarri askotako zurajeari, gaur ala egin bear balira nundik? Baso bikaiñak baziran nunbaite, eta urte batzuk bizkarrean daramazkigunok ezagutu ere egin genitun. Pago motzakin nik ezagutu dedan basorik ederrena Matxinbentan ezagutu det Santa eskera klopari joanda, baiña ura ere aspaldi bukatua izan bear du. Esaten dutenez, barku edo itsasontzi aundi oiek egiteko ere, gure basoak bearrezko ziran, gaur ez lituzteke asko egingo.

> *“Lenago ez genitun aberastasun asko etorri zaizkigu Euskadira, baiña baso aldetik beintzat, sinisten ere zail degu moduan bajatu gera, eta geiago bajatuko ote geran itxurak daude”*

Lenago ez genitun aberastasun asko etorri zaizkigu Euskadira, baiña baso aldetik beintzat, sinisten ere zail degu moduan bajatu gera, eta geiago bajatuko ote geran itxurak daude. Adibidez, orain perretxikutara ere Naparrora joan bearra daukagu.

Nere lantxo au argitaratzerako martxoaren lenengo eguna igaroa izango da noski, egunerokotako gezurrak, asi naiz, eta gure politiko oien sermoiak danak egitazkoak izan ote dira? Ala balira ondo giñake, naiz gure basoetako aberastasunak murriztu. ■

ARTESANIA
ZUEN TZART
eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!
GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

ARTE TAILERRA
HAURRAK ETA HELDUAK
Sormen lana: marrazketa, margoak, eskultura.
Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 685

1. Saria. Bidaide bidai agentzian, gau bat bi lagunentzako landa-turismoko etxe batean. Iñaki Olaetxea Amonarriz
2. Saria. Mahala esnekiak produktuen, urdaiazpiko paleta bat eta gazta bat. Oihana Sanchez Artieda
3. Saria. Aralar kirolak dendan, forro polar bat. Juantxo Pagola Letamendia
bai euskarari
galtzaundi
Harremanetan jartzeko, Galtzaundiko egoitzara gerturatu edo 943 655 004 telefonora deitu

ARALAR KIROLAK
Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

IRASTORZA GARRAIOAK
Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxa: 943 671 865

# Abizenak euskarazko grafiara aldatzeko aukera

**ZUK ERE EUSKARAZKO ABIZENA BADAUKAZU, EUSKARAZ IDATZ DEZAKEZU!**

*Erredakzio Batzordea*

**Tolosako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak abizenak euskarazko grafiara aldatzeko aukera azalarazi nahi izan dute. Horretarako, postal informatiboak banatuko dira, Tolosako herritarrak, aurkeztu beharreko dokumentazioa argi azalduz.**

Orain oso erraz alda ditzakezu zure abizenak euskarazko grafiara. Anoetan, abizenak euskarazko grafiara aldatzeko aukera eskainiz, "apelliduak abizendu" kanpaina martxan jarri zuten. Tolosan ere, kanpaina honen berri eman nahi izan da eta horretarako, Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosako Udalak, Tolosako Erregistro zibilean aurkeztu beharreko dokumentazioaren berri emateko, postal informatiboak banatuko ditu martxoan.

Erregistro zibilean egin beharreko tratimatizio guztia doakoa da, eta bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengo hau da:

### ADIN NAGUSIKO EZKONGABEAK:

- Jaiotza Ziurtagiria
- Errolda agiria
- N.A.N.

### ADIN NAGUSIKO EZKONDUAK:

- Jaiotza Ziurtagiria
- Errolda agiria
- N.A.N.
- Famili liburua

### ADIN TXIKIKOAK:

- Jaiotza Ziurtagiria
- Errolda agiria
- N.A.N
- Famili liburua
- 2 gurasoak




Aldaketak egin ahal izateko bakoitzaren presentzia ezinbestekoa da. Pertsona batek ezin ditu beste pertsona baten dokumentuak eraman. Behin tramitazioa bukatuta dokumentazio guztiaren eskaera egin beharko da.

Edozein duda izan ezkero, gurekin harremanetan jartzeko, lasai deitu Galtzaundiko Euskara Taldera (943 655 004) edo Tolosako Erregistro zibilera (943 002 610).

Oraingoan ez duzu aitzakiarik! Anima zaitez! ■

antza



# Kafea eta artea

## HAINBAT TABERNA ETA KAFETEGI ARTELANEN ERAKUSTOKI ERE BADIRA

Gorka Otaegi

**Inguruko taberna batzuetako paretei erreparatzea nahikoa da galerietatik at ere artelanez goza dezakegula ikusteko. Toki eta garai desberdinetako argazkiak, grabatuak, eskulturak, koadroak, tresnak… Era guztietako lan eta berezitasunek dute euren txokoa kafeak eta arteak bat egiten duten leku hauetan, bezeroen gozamenerako.**

Goizean goiz, bazkalostean edo laneko atsedenaldietan errutinaz hartzen dugun kafeak pizgarria izan dezake, baldin eta erakusketak antolatzen dituen taberna edo kafetegi batean egiten badugu. Horietako batzuk dira Tolosako Lanbroa taberna, Alegiko jubilatuen elkartea eta Hernialdeko ostatua. Lehendabizikoan, 18 urte daramatzate erakusketak antolatzen. Kike Garmendiak ongi gogoratzen du lehen erakusketa hura jartzeko proposamena: "Akotan etortzen zen bezero batek, gerora "Cuba y palante" GKEa sortu zuenak, Cubatik artelanak ekarri, saldu eta dirua hara bidaltzea proposatu zidan". Erakusketa ongile hark harrera ezinhobea izan zuen, ia koadro guztiak saldu zirelarik. Geroztik, hainbat lagun hurbildu dira Lanbroara euren lanak erakusteko intentzioarekin. "Hala izan ez balitz, taberna honek ez zukeen behin ere erakusketarik antolatuko".

Bestelakoak izan ziren Alegiko jubilatuen elkarteko hastapenak duela sei urte. Patxi Renobalesek adierazi digunez, berak jotzen du artistengana erakusketa jartzeko proposamenarekin. "Dekorazioa aldatzeko" eta "herriko jendeari aukera bat emateko" ekin zion lanak ikusgai jartzeari. "Lehen urtean herriko jendearen erakusketak izan genituen".

Ikusgai dauzkaten garai bateko argazki kamera artean aurkitu ditugu Ximon eta Igone, duela urtebete Hernialdeko Ostatuaren ardura hartu duen bikotea. Arte ederrak ikasi dituen eta "pareta hutsak gorroto" dituen Ximonek dioenez, "oinarrian, argazki erakusketak" antolatzen dituzte. Hori bai "deskriptibo hutsak baino zerbait gehiago badira" nahiago dituela ere gaineratzen du. "Puntu kontzeptuala edo denuntzia puntua" dutenak atsegin ditu. Horren adierazgarri dira, lehen urte honetan antolatu di-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

tuen argazki erakusketen gaiak: Prestigearen hondamendia, leihoak... Dena den, argi uzten dute hasiera batean ez dutela inongo muga berezirik jartzen, ez diak, paisajeak, oleoak, akuarelak...". Edonork du bertara joan eta erakusketa jartzeko txanda eskatzeko aukera. Dagoeneko, 2010eko apirilera arte, dena erreserbatuta dute Tolosako taberna honetan.



"Iparretik hegora, hankaz gora" erakusketa Alegiako Jubilatuen tabernan.

tematikoki eta ezta euskarriari dagokionez ere. Gauza bera azpimarratzen du Lanbroako Kikek: "Denetik izan dugu hemen: emakume eta gizon biluzien iru-

## "AFIZIONATUENTZAT AUKERA"

Aipatu ditugun azken hauek dira artistek gehien baloratzen dituzten alderdiak. Alegin Argentina, Mozanbike eta Perura egindako bidaien argazkiekin "Iparretik hegora, hankaz gora" erakusketa jarri duten Ainhoa Arregi, Arrate Iturbe eta Amaia Aramendi gazteen iritziz, "afizionatuen erakusketak" jartzeko aukera eskaintzen dute tabernek. Horrez gain, erakusketak jartzen urte mordoa daramatzan Mari Luz Arenas-ek, galerietako arduradunen helburua ekonomikoa dela gogorarazi digu. Hori dela eta, "oso ezagunak ez diren artistek zailtasunak dituzte galerietan erakusketak jartzeko, zerbait oso berezia egiten ez badute behintzat". Bestelade, "tabernetan erakusketak jartzeko gutxiago itxaron behar da. Galeri batean eskaera onartu eta bost urtera jar diezazukete erakusketa. Tabernetan berriz, urtebetera. Eta denbora azkar pasatzen den arren, epe horiek atzera botatzen zaituzte".

Tabernetan artelanak jende askorengana eta erraz iristen dira. Jendeari "eserita jarri, kafea hartu eta toki txikian artelan guztiak ikustea" gustatzen zaio Lanbroakoen iritziz. Honen harira, Garmendiak bere garaian artista batek esan ziona bere egiten du: "Toki hau kafetegia daukan arte galeria bat izan beharrean, arte galeria bat barruan duen kafetegia da". "Batzuetan jendeak artelanak sorpresaz topatzen ditu tabernetan", dio Hernialdeko Ostatuko Ximonek, "hemen bizi guztian galeria batera joan ez den jendea aurkitu dezakegu koadroak begiratzen. Tabernetakoa aukera bat gehiago da". Hala ere, honek bere alde txarra ere izan dezakeela uste dute "Iparretik hegora, hankaz gora"ko lagunek. Izan ere, beraiena bezalako erakusketetan, gehienetan mezu bat helarazi nahi izaten zaio ikusleari. Baina "kontuan izan behar dugu tabernara joaten den ikuslegoa, ez dela erakusketa ikustera doan jendea". Ondorioz, askotan jendeak ez du argazkiek azpian dakarten mezua ongi interpretatzen. "Askotan konturatu ere ez dira egiten argazkiak hor daudela". Horrek ez du esan nahi artelanak errespetatzen ez direnik. Alegiko jubila-



Hernialdeko Ostatuan argazki kamaren erakusketa dago ikusgai.

tuen elkartean behin egun argitan gertatutako koadro baten lapurreta salbu, elkarrizketatuek ez dute inolako arazorik izan.

Bezeroek lan edo objektuak ikusteaz gain, erakusketaren inguruko beren iritziak ere ematen dizkiete tabernari eta artistei. Honen inguruan, tabernara doazenek "komentario asko" egiten dituztela dio Garmendiak. "Akats asko ere ateratzen dizkiete lanei. Batez ere paisai eta leku ezagunen margolanei: perspektiba ez dagoela ongi, itzala...". Bezeroen artean, artelan klasikoek arrakasta handiagoa izaten dute modernoek baino. Arenas margolariak jendeak, oraindik, "garai batean existitu zen baserri baten margolanak edo erretratuak" eskatzen dizkiola aitortzen du. Hala ere, gazteen eskutik aldaketa badatorrela ere nabaritzen du: "Gazteei gehiago gustatzen zaizkie dekorazioa, lan abstraktuak, gauza modernoak...".

## TABERNEN PIZGARRIA

Zenbait kasutan, tabernariek eurek ere ipini izan dute erakusketaren bat. Esate baterako, Alegiko Patxi Renobalesek eta Hernialdeko ostatuko Ximonek beren argazkiak ikusgai jarri izan dituzte. Azken honek, bereak diren zenbait argazki kamera zahar ere bai.

Erakusketekin tabernek zer irabazten duten galdetzean, Renobalesek "bizitasuna eta erakusketak aldatzean etortzen diren bezeroak" aipatzen ditu, begi bistakoa den "dekorazio aldaketaz" gain. Lanbroan gustura daude erakusketen kontu honekin hedabide gehienetan ateratzen direlako. Aipatu beharra dago erakusketa hauek guztiak muxu-truk egiten direla. Lanak normalean salgai izaten dira, baina tabernariek ez dute hauen salmentatik komisiorik kobratzen, aurrez aipatu ditugun arrazoiak direla medio. Prezioak, gainera, artistek eurek erabakitzen dituzte.

> *" Heme bizi guztian galeria batera joan ez den jendea aurkitu dezakegu koadroak begiratzen."*

Iskina tabernan lan egiten duen Mari Luz Arenas bezalako artista batentzat erakusketa hauek antolatu ahal izateak asetasun handia suposatzen dute: "Erakusketa hauek bizi erdia suposatzen didate. Tabernako lanak urdaila betetzen dit, eta pinturak arima".

Etorkizunari begira, elkarrizketatutako tabernariek erakusketak antolatzen jarraitzeko gogoa erakutsi dute. Kafeak eta arteak uztarturik jarraituko dute, beraz, hainbat kafetegi eta tabernetan. ■


Beti alai jatetxea
Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak
Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA
Iñigo Ximénez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa
Sta. Mª de la Asunción klinika
Balorazio psikologikoa: ebaluazioa eta orientazioa
Psicoterapia prozesua

ZABALA DESGUAZEAK
Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04
Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNTZA
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347

Mahala
Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia
ECEIZA
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

**TOLOSA >>>** NORMA VAZQUEZ, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN, EUSKAL HERRIKO ADITURIK ONENAK HITZALDIA EM

# Zabaldu begiak emakumeen aurkako in

Norma Vazquez Mexikon jaio zen. Psikologian eta promozio sozialean lizentziatua da. Gero, emakumeen aurkako indarkerian espezializatu zen. El Salvadorren bizi izan da, eta hango emakumeekin egin du lan. Duela 8 urte etorri zen Bilbora. Estatuko aditurik onenetarikoa da. Hainbat hiri eta herrietako emakumeen indarkeriaren aurkako protokoloak diseinatzen ari da. Tolosako diagnostikoa eta protokoloa ere berak egingo ditu.

*Leire Zubeldia*

Bistakoa da, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, gizartean dagoen kezka. Herritarren zalantzak erantzuteko asmoz, Tolosako Berdintasun Sailak, Norma Vazquez, genero indarkerian Euskal Herrian dugun adituRik onena, gonbidatu zuen Tolosara. Otsailaren 17an, Kultur Etxeko areto nagusian eskaini zuen hitzaldira ordea, 6 lagun besterik ez ziren hurbildu.

Genero indarkeriaren inguruan sortu diren hainbat mito okerren berri eman eta jendartean ikusten dituen zalantzei erantzuten saiatu zen Norma Vazquez psikologoa ordu bete iraun zuen hitzaldian. Hasteko, "emakumeen aurkako indarkeria" kontzeptuari eutsi zion. "Termino honetan, subjektu bat falta da. Subjektu hori *nork* da, eta honi, *zergatik* gehitu dakioke". Honen aurrean, "emakumeen aurkako indarkeri maskulinoa" kontzeptuaren alde egin nahi izan zuen Normak.

Indarkeria mota honen helburua berriz, argi eta garbi azaldu zuen hizlariak: Kontrola. "Indarkeria abaraska honetan, hilketaz gain, beste biolentzia motak daude. Guzti hauen helburua, emakumearengan beldurra eragin eta autonomia prozesua mugatzea da".



## GENERO INDARKERIA, DELITUA

Egun, legeak delitutzat jotzen du emakumeen aurkako indarkeria. Vazquezen iritziz, aurrerapauso handia da hori. XX. mende hasieran, emakumeen sufragioa onartu izanarekin parekatu zuen delitu kontsiderazioaren garrantzia. "Baina legea gauza bat da, eta pertsonen bihotzean eta buruan dagoena beste bat", esan zuen segidan. Norma El Salvadorren bizi izan zenean, hango emakumeekin ikerketa bat egin zuen. "300 emakumeri galdetu nien, ea zer pentsatzen zuten genero indarkeriaz. Denek kondenatu zuten, eta zigor bezala, heriotza-zigorra edo bizi osorako kartzela eskatzen zuten". Gauzak aldatu egiten ziren ordea, ondorengo galdera hau luzatzen zienean: "*Eta zure senarra, semea edo anaia indarkeria kasu batengatik akusatua izaten bada?* Orduan, denek erantzuten zuten, akusatzailea den neska ezagutu beharko litzatekeela". Hemendik ondorioztatzen du Normak, urrundik begiratuta gaitzetsi egiten dugula indarkeria, baina gertuko norbaitengandik etortzen bada indarkeria hori, ez dugula ikusi nahi izaten. Hau da arazoetako bat.

"Komunikabideen bidez, genero indarkeriaren fenomenoa zabaltzen doan heinean, indarkeria kasuak ere areagotu egiten dira". Indarkeria era hau delitua denez, salaketak igo egin dira, eta hauek igotzen doazen neurrian gora doaz indarkeria kasuak ere. Puntu honetara iritsita, tarte zabala eskaini zion hizlariak, emakume gazteen aurkako erasoen gaiari. Kasu honetan ere, salaketak hazi egin dira, baina askotan, sexu erasoak ez direla salatzen esan zuen. "Zen-

MAN ZUEN TOLOSAN

# ndarkeriaren aurrean

> *"Emakume gazteek ez dute uste bere mutila biolentoa izan daitekeenik"*

baitetan, biktimak ez du nahi izaten, eta beste batzuetan, gurasoak dira salaketa jartzeari uko egiten diotenak". Biktimaren lagunen papera ere aipatu zuen Vazquéz-ek. "Salaketa bai edo ez erabakitzeko garaian, neskaren lagunek eragiten dute askotan: b*ortxatu egin zaitu, eta hori oso gaizki dago, baina zuk ere onartu ezazu adarrak jarri dizkiozula*, eta horrelakoak esaten dituzte". Adibide gisa, bere kontsultara etorritako familia baten kasua azaldu zuen. "Alabak sexu erasoak jasan zituen, baina berak ez zuen esan nahi nor zen erasotzailea. Ubeldurak zituen sahietsetan, ostikoek eraginda, eta ubeldurak zituen baita ere beso banatan. Medikuarengana joan ziren, eta medikuak pomada bat eman zion. Beste ezer ez zuen egin". Helduei gazteek jasaten dituzten erasoak ikusi eta onartzea asko kostatzen zaiela adierazi nahi izan zuen adibide honekin. Eta are gehiago kostatzen zaie gurasoei, bere alabak mutil-lagunarekin era honetako arazoak izan ditzakeela sinesten.

## KENDU ZAPIA BEGIETATIK

Emakumeak aurrera pauso handiak eman ditu azken hamarkadetan. Ekonomikoki aukera gehiago ditu, goi mailako ikasketak egiten ditu, lan munduan sartu da, nahiz eta hemen oztopo gehiago eduki, eta politikan ere ari da, azken honetan, sapaia gogorragoa izan arren. Baina psikologoaren ustez, bikote bizitzari begiratuz gero, egungo emakumeak joan den mende hasierako emakumeen antza handia du. "300 emakume gazteri ondoko galderak egin dizkiegu: *bikotekideak, uzten baduzu zerbait egingo dizula esaten badizu, jarrera biolentoa iruditzen zaizu hori?* Gehienek ezetz erantzuten zuten. *Egunean hamar dei galdu egin eta beste horrenbeste sms bidaltzen badizkizu, nola hartzen dugu harrera hau? Ba, asko maite nauela,* erantzuten zuten. Jarrera hau, arreta eskaintza bezala hartzen dute neskek, eta ez kontrola helburu duen joera bezala". Galdeketa guzti hauetatik ondorio argi bat atera zuten Normak eta bere lankideek: Emakumeak inoiz ez duela pentsatzen bere mutila biolentoa izan daitekeenik. "Nahi ez baduzu, kasurik egiten ez badiozu, indarkeria ez da existitzen. Indarkeria gure buruetan dago". 15 eta



25 urte arteko neskek egindako baieztapena da hau.

## MAITASUNAREN IDEIA OKERRA

"*Masaileko bat eman edo besotik tira egiten badizu, nola hartuko zenuke hori? Maite badut, barkatu egingo nioke. Norbait maite badugu, lagundu egin behar diogu*". Jarrera honek feminitatearen kontzeptu psiko-sozialarekin du zerikusia Mexikoko psikologoaren ustez. "Maitasunaren ideia okerra daukagu, egungo emakume gazteak oso galduta daude alor honetan". "Inoiz ez gara banatuko", "zu gabe hil egingo naiz", "nire bizitzako mutila zara", "niretzat nahi zaitut"... 20 eta 22 urte arteko emakume gazteen esaldi hauek jarri zituen adibide bezala. "Maitasunaren ideia hau oso arriskutsua da, autonomia pertsonalarentzat ez baitu tarterik uzten. Egoera honetan, emakumea nekatu egiten da denborarekin, eta mutil-laguna utzi nahi duen unea iristen zaionean, oso zaila egiten zaio banatzea".

## GENERO INDARKERIA BERRIA

"Orain arte, emakumea kontrolpean edukitzeko erabiltzen zuen indarkeria gizonak. Orain, indarkeria zigor bezala erabiltzen da". Azken honi, genero indarkeria berria deitzen dio Vazquez-ek. Egun, emakumeok autonomia handiago dugu, gure lana, gure baliabide ekonomikoak eta gure harremanak ditugulako. "Auntonomia hori zigortzen du indarkeria erabiltzen duenak: *zigortzen zaitut, ni gabe moldatu zaitezkeelako*". Hau frogatzen du horrengo baieztapenak: "indarkeria jasaten duten emakumeen gehiengoa bikotekidearengandik banatzeko prozesuan egoten dira".

Norma Vazquez izango da Tolosako emakumeen aurkako indarkeriaren diagnostikoa eta protokoloa egingo duena. Beraz, hitzaldi interesgarri honetan egoterik izan ez zutenek, edukiko dute psikologoa entzuteko aukera. ■

ZETA S.L.
MUNTAKETA ELEKTRIKOAK
Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

GORRI
Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak
Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia
kafetegia
Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643

**AMEZKETA** >>> IRAKURKETA TALDEAK BERE BIGARREN URTEA ABIATU DU

# Hileko lehen astelehenetan letrak dantzan Amezketan

Herrietako aisialdi eskaintza aberastu nahian kultur ekintza eta ekimenak antolatzen dabiltzanek (hitzaldi, solasaldi, ikusentzunezko proiekzio...) ondo baino hobeto dakite zein zaila den herritarrak ekimen hauetara erakartzea. Egungo bizimoduaren erritmo zoroaren aitzakia tarteko, ez omen dugu ezertarako astirik, eta ondorioz, zenbait kasutan ekintza horiek herrian izaten duten harrera ez da suziriak botatzen hasteko modukoa izaten. eru gris horretan, ordea, eguzki izpiak ere ikusi ohi dira noizean behin, eta guk Amezketan aurkitu dugu izpi horietako bat, zertan, eta literaturari argi egiten, euskal literaturi gainera.

*Amaia Goikoetxea O.*



Aurten bigarren aldiz jarri dute martxan Amezketako Irakurketa Taldea. Pasa den otsailaren 2an burutu zuten kurtso berriko lehen bilera, eta beraiekin biltzeko aukera izan genuen.

Herriko liburutegian zuten hitzordua arratsaldeko 19:00etan. Halabeharrak halaxe nahi izan zuen, eta ordu berean hileta bat zen ospatzekoa elizan; horrek partehartzaile batzuei lehen saio hartan parte hartzea eragotzi zien, baina hala ere hamar laguneko talde polita hurbildu zen liburutegira, guztiak Jon Arretxeren Fatum eleberria besapean zutela, horixe baitzen egun horretarako irakurri beharreko liburua. Ohiko moduan, Xabier Mendiguren idazle beasaindarrak gidatu zuen saioa. Honek azaldu zuenez, hasiera batean Jon Arretxe bera bilerara etortzekoa zen, baina egun eta ordu berean Bilboko operako abesbatzarekin abestea egokitu omen zitzaion, eta ezin aldi berean bi lekutan egon. Idazlearen faltan, Mendigurenek eman zituen Arretxeren inguruko hainbat argibide.

Eta segidan irakurleak liburuari buruzko euren iritzia ematen hasi ziren. “Datu eta deskribapen gehiegi ematen dituela iruditu zait. Hainbeste xehetasunekin, ez dakit ez ote duen zenbait momentutan istorioa alde batera uzten”, zioen batek. “Niri horixe gustatu zait, bada, gehien. Protagonistak Lisboako tranbian doanean egiten duen ibilbideak ia-ia bertara eramaten zaitu”, zioen beste batek. “Bada, ni izan naiz Lisboan, baina ez dut liburuan agertzen den Lisboa ezagutzen!”, hirugarren batek. “Erraza da irakurtzeko, baina nobela beltza izateko tentsio gutxi samar duela iruditu zait”, kritikatxoa mahai bazter batetik. “Trama poliziako on bat asmatzea zaila izan behar du”, Mendigurenen azalpena. “Giroa eta pertsonaiak oso ondo azalduta daude”, irakurle baten onespena. “Bai, baina zein kutrea den Barbosa!”, eta barre algarak. “Benetako pertsonaia bat balitz bezala hitz egiten duzu hari buruz, eta nobela bat da!”, ondokoaren erantzuna, eta barre algara gehiago. Eta hau guztia urdaiazpiko eta txorizo mokadutxo batzuk eta ardo pixka bat dastatuz. Plan hoberik?

## EZ DA ADITU IZAN BEHAR

Antton Amonarriz da Irakurketa Taldeko kideetako bat. Berak azaldu digunez, Amezketan udal berria sartu zenean sortu zen egitasmo hau martxan jartzeko asmoa. “Jende askok jotzen zuen herriko liburutegira liburu baten bila, baina aukeratzen zuten hori oso gutxitan izan ohi zen euskarazko liburu bat. Horregatik, eta Amezketan euskaraz alfabetaturiko jende asko zegoela kontuan hartuta, euskarazko liburuen inguruan interesa pizten saiatzea erabaki zen”. Iaz jarri zuten martxan Irakurketa Taldea, eta herritarren artean oso harrera ona izan zuen: hamabost lagun inguru biltzen ziren saioetan, eta hori asko da, are gehiago euskal literaturaz ari garela kontuan hartuta. Lehen gaztelaniazko liburuak soilik hartzen zituen jendeak, euskarazko liburuen artean begiratzen eta pixkanaka liburu horiek irakurtzen hasi zen, eta konturatzen, euskaraz irakurtzeko ez dela euskal filologian lizentziatua izan behar, euskara ezagutzearekin aski dela. “Irakurketa Taldean biltzen garenok ez gara ez kritikariak ezta literatur adituak ere. Irakurle xumeak gara, besterik gabe”, nabarmendu nahi izan du Anttonek.

Martxoaren 2an egin zuten beste saioa. Sisifo Maiteminez irakurri dute oraingoan, eta Laura Mintegi, egilea bera eurekin izan da. ■



"Kantauri Itsasoa nabigaziorako arriskutsua denaren mitoa baztertu beharra dago".

# Floren Probanza itsas nabigazioaren irakaskuntzan

**"BELAUNTZIEN NABIGAZIOAK LILURATU EGIN NINDUEN. NATURAREN INDARRAZ, BESTE EZER GABE"**

Felix Aiestaran

**Floren Probanza Arrizabalaga (Urretxu, 1956) Ingeniaritza Teknikoaren ikasketak burutu zituen, baina komertzioaren aldetik bilatu zuen lanbidea. Duela zazpi urte Nautika eta Itsas Garraio ikasketak egiteari ekin zion Portugaleten. Nabigazio Lizentziatura atera ondoren hamabi hilabeteko praktikak egin zituen Pasaiako atoiuntzi eta portakontenedore batean. Itsas Garraioko pilotua izanik, Aisialdirako Itsas akademia eratu eta irakasten hasi zen, duela bi urte. Itsas irakaskuntzak erabat asebetetzen du, eta liluratuta dago bere gogoko jarduera itsasoan aurkitu izanagatik. Azkeneko promozioan, berarekin aritu ziren hogeita bost lagunek, denek atera zuten agiria.**

**Nola murgildu zinen aisialdirako itsas munduan?**

Lagun batek gonbidatu ninduen belauntzi estropada batean "pisu" modura Hondarribiatik Getariara. Haize handirik ez zuen egin eta nahikoa aspergarria izan zen, baina itsas munduak harrapatu egin ninduen. Horrela, ni orain irakasten ari naizen PER (aisialdi pilotu titulua), yate patroia eta yate kapitaina tituluak atera nituen. Ondoren, Itsas Merkataritzako Kapitain titulua atera nuen Portugaleteko EHUn bost urteko ikasketak eginda.

**Zerk "harrapatu" zintuen?**

Belauntzien nabigazioak liluratu egin ninduen. Naturaren indarraz, beste ezer gabe, noranahi joan zaitezke, inolako gas edo zarata kutsadurarik bota gabe. Ni beti belauntzietan ibiltzen naiz. Haizeak eramaten zaituen aldera joatea, besterik gabe, dut gogoko. Ez dut lasterketetan ibiltzeko inolako asmorik .

**Noiz hasi zinen itsas irakaspenak ematen?**

Duela bi urte hasi nintzen. Aurretik ez nintzen sekula irakaskuntzan ibili, baina oso gustura ari naiz. Formazio klaseetarako nire materiala osatu dut. Ikasleak ez dira aspertzen. Ikasleek interes handia dute, gogokoa duten alorra delako. Kontuan izan jende heldua dela eta ikasketak egiteko ordaindu egin behar dutela.

**Zein jende mota hasten da itsas pilotu ikazketak egiten?**

Adin guztietako ikasleak ditut, hemezortzi urteko gazteengandik hasi eta jubilaturik daudenetaraino. Agertu izan dira baita ere itsasontzi bat erosi dutenak, berau pilotatzeko titulu bat atera behar dela jakitean. Beste batzuk, itsas kirol arrantza, urpeko jardue-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

rak… egiteko ontzi ttiki bat erosi nahi izaten dute. Belauntzian laguntzaile modura probatu eta egunen batean gidatu behar izanez gero ere, titulua atera behar dutenak… Itsasontzi ttiki bat erosi eta munduari itzulia ematearekin amets egiten duenik ere izaten da tartean. Finean, itsasoa maite duen jendeak atera nahi izaten du itsas pilotu agiria.

**Zein ezaugarri izan behar ditu itsas pilotu batek?**

Batez ere gogo handia izan behar du. Oinarrizko formazio teknikoa badu kalkulagailua, angelua, ordu eta minutuak… kalkulatzeko askoz hobe. Trigonometria ezagutza izateak laguntzen du, itsas-ertzeko nabigazio arloa lantzeko. Ez da behar beste ezagutza berezirik.

**Zein alor lantzen dira aisialdi itsasontziko patroi izateko?**

Alor teorikoan zortzi gai lantzen dira: itsasontzi teknologia (itsasontzi motak), itsasontzi maniobrak (atrake edo fondeatzeko…), korapiloak, segurtasuna (ekaitz bati nola aurre egin, GPSa,bengalak…), nabigazioa (paraleloak, meridianoak, itsasargiak…), meteorologia, irrati komunikazioa (larrialdietarako jokabidea…), propultsio mekanikoa (belauntziek ere larrialdi eta portuko sarrera-irteera maniobrak egiteko motorra izan behar dute) eta azken gaia araudiarena da (itsasontzien arteko talkak ekiditeko zirkulazio kodea eta portu inguruko balizazio kolore seinalizaioak…. ). Bestetik, praktika alorra dago. Praktikan, zailena itsasontzien atrakea eta desatrakea maniobrak dira, tarte ttikietan egiten direlako. Ikasleak nahikoa ondo moldatzen dira. Uretatik norbait erreskatatzeko ezarrita dauden maniobra desberdinak ere lantzen ditugu.

**Garestia al da itsas nabigazio titulua ateratzea?**

Hori oso erlatiboa da. Aisialdirako itsasontzi baimena, PER ikastaroa, alegia, 890 euro inguru kosta daiteke. Teorikoa eta praktika lantzen dira.

**Zer da zailena titulua ateratzeko?**

Karta batean nabigazio ariketa batzuk egin behar izaten dituzte. Horretarako konpasa, erregela… behar izaten dute. Normalean zientzietatik ibilitakoek ez dute arazorik izaten. Bestetik seinalizazio argiak ezagutu behar dira. Itsasontzi guztiek gauez argien bidez identifikatuta egon behar dute: motor itsasontzia, atoiuntzia, arrantzuntzia, gobernurik gabeko ontzia… Egunez marka beltz batzuekin identifikatzen dira. Argi eta seinale guzti horiek ikasteak nahikoa burukomina ematen du. Baina gero, denek ateratzen dute agiria.

**Zein ezaugarri izan behar ditu itsasontzi kapitain batek?**

Jendearekin pazientzia handikoa izan behar du. Bestetik oso zuhurra izan behar du. Lehenik eguraldi iragarpena kontuan hartu behar da itsasora irten baino lehen; hala ere, egoera zail baten aurrean aurkitu liteke. Kasu hauetan ez du urduritasunik azaldu behar besteen aurrean. Egoera kontrolatuta dagoela azaldu behar du. Eskarmentua handitzen den heinean, egoera zail bakoitzaren aurrean nola jokatu segurtasun handiagoaz jakiten da.

**Zerk bultzatzen du jendea itsas patroi titulua ateratzeko?**

Akademia bukatzen duten gehienek ez dute itsasontzirik erosten.Opor mota desberdinak izateko aukera gisa planteatzen dute askok.

**Garestia al da itsasontzia mantentzea?**

Euskal Herrian aisialdi itsasontziak lotzeko toki gutxi dago. Portu gutxi daude eta daudenak gainezka egoten dira. Itxaron zerrenda handia dago. Azken urteotan itsasontziak lotzeko puntuak gehitu dira. Azkenekoak Orio eta Hondarribikoak dira. Azken honek, dagoeneko zortzi urte egin ditu. Badirudi lotune gehiago egin behar dituztela. Kirol itsas portuen alorrean eskaera handiagoa dago eskaintza baino. Sei metro eta erdiko itsasontzia urtebetez portuan lotuta edukitzeko, astebetean eskiatzen gastatzen duzuna behar duzu. Nik, itasontzia Zumaian urtebete edukitzeagatik 1200 euro ordaintzen ditut. Itsasontzi bati ateratzen zaion etekina beste edozein jarduerarena baino handiagoa da.

**Europan Itsas Kirol Portuen arloan tradizio handiagoa al dago?**

Alor honetan nahikoa atzeratuta gaude. Europan nabigazio kultura handia dago. Aisialdirako Itsas Industria oso garatua dago. Kirol portu gehiago daude eta bertako zerbitzuak hemengoak baino askoz hobeak izaten dira. Aisialdirako Itsas Nabigazioa, aberatsen kontua denaren mitoa baztertu egin beharra dago. Hemen inbertsiorako kultura desberdina dugu. Udarako edo negurako apartamentua erosi beharrean, itsasontzi bat erosi eta bertan egiten dituzte bere oporrak, tokiz toki ibiliaz.

**Zertan hobetu behar dute euskal itsas portuek?**

Lehenik, hobetu egin behar dituzte bere instalazioak. Zumaia eta Hondarribikoak nahikoa ongi daude, baina Oriokoan, besteak beste, ez dago instalaziorik ere. Udan jendeak arropa garbitzeko gailuaren beharra izaten du… Segurtasunerako zaintza handiagoa behar da. Itsasontziak lotzeko plataformen mantenua egin behar da…

**Zer da itsasoa zuretzat?**

Askatasun bizipena da. Itsasoratzen zarenean eguneroko arazoak baztertu eta nabigazio jardueran buru belarri sartzen naiz. Jendeak itsasoa monotonoa dela pentsa badezake ere, itsasoa egunero desberdina da: kolorea, uhin motak, hegaztiak, zerua…

**Belaontzi batean zoazenean ez al zaizu iruditzen naturaren menpean zaudela?**

Itsasoak jotzen duen doinuaren arabera mugitu behar da. Itsasoko uhin eta haizearen indarra izugarria da: ezin da bere aurka aritu. Egokitu egin beharra dago.

**Zer esango zenidake itsas pilotu ikasketak egiten has nadin?**



Esan dizudan guztiarekin ez al zaitut konbentzitu? Ederra daukat orduan! Itsas gizonek aipatzen dutenez, hobe da tabernan garagardoa eskuetan itsasoratzeko gogo betez egotea, itsasoren erdian taberna batean garagardoa hartzeko gogoz egotea baino. Kantauri Itsasoa nabigaziorako arriskutsua denaren mitoa baztertu beharra dago. Prestatuta itsasoratuz gero arriskuak ekidin daitezke. Akademiatik urte osoan zehar ateratzen gara praktikak egitera, azkeneko udazken eta negu berezi hauetan izan ezik.

**Euskaldunok beti itsasoarekin lotura handia izan dugu…**

Euskaldunok industrializazioari eutsi genionean itsasoari bizkar eman genion. Aisialdi nabigazioari dagokionez, klima eta itsaso askoz ere gogorragoak izan arren, Norvegia kasu, aisialdi nautikaren alorrean guregandik oso urrun daude. Aisialdia gaur egun, asko zabaldu da.

**Eta ekaitzak harrapatzen bazaitu, zer?**

Udako galerna, denbora gutxian, ezustean, indar handia hartzen duen zurrunbiloa da, eta halako batek, belauntziaren oihalak biltzeko denborarik ere ez du ematen. Mendebaletik jotzen du, eta Hondarribira sartu behar dutenak kontu handiz ibiltzen ez badira Hendaiako hondartzan buka dezakete. Patxada eta zuhurtasun handienaz aurre egin behar zaie.

**Nola bizi izan zenuten azkeneko ziklogenesis leherkaria?**

Ekaitzaren sorrera baizik ez zen izan, baina izugarrizko indarra izan zuen eta Hendaiako Portuan itsasontzi ilara osoa eraman zuen. Nire itsasontzia Zumaian egoten da eta lasai egon nintzen, babes oso ona duen portua baita.

**Itsasoko terminologia, beste mundu bat da ezta?**

Itsas Nabigazio ikasketez gain nire ikasleek hizkuntza berri bat ikasteari ekin behar diote: itsas terminologiarena. Hasieran ulertzea kosta egiten zaie, baina poliki-poliki bereganatzen dute. Lurrean era batera deitzen zaion edozeri, itsasontzian beste era batera deitzen zaio.

**Itsasoko bizimodua ez al da gogorregia?**

Itsas merkantzia garraioan lan egiten dutenak, lurrean geratzeko gogoz daude. Garai batean, zamaketa lanak egiten zituzten bitartean hamabost egunez portu bakoitzean egonaz, hiri ugari ezagutzeko aukera izaten zuten. Gaur egun ez dago horretarako betarik ekonomia merkatuak lehiakortasun basatia ezarri du eta itsasontziak alde batetik bestera ahalik eta lasterren kostuak murriztuaz ibiltzen dira. Ni 1200 kontenedore garraiatzen zuen portakontenedore ttiki batean aritu nintzen. 120 metro luzeko itsasontzian hogeita bat lagun geunden. Ia laurehun metroko luzera duen munduko portakontenedore handienean 10.000 kontenedore garraia daitezke eta bertan hamar lagun baino gutxiagoko tripulazioa nahikoa da.

**Zerk harritu zaitu gehien itsasoan?**

Itsasoan dagoen zetazeo pilak harritu egin nau. Gipuzkoako itsasertzean izurde ugari aurkituko dugu. Bilbotik Kanarietara joatean, brankatik izurde ugari ibiltzen zen eta baleak ere inguratzen zitzaizkigun. Hori zoragarria da! Usoak penintsulatik Afrikara pasatzeko bidean gure itsasontzian atseden hartzen zuten gauetan. Itsasontziak hegazti ibiltarientzat atsedenerako uharteak dira. Guzti hori ikustea miresgarria zen. Bestetik itsasoan gabiltzanon artean larrialdi batean elkar laguntzeko dagoen elkartasunerako jarrera zoragarria da.



"Sei metro eta erdiko itsasontzia urtebetez portuan lotuta edukitzeko, astebetean eskiatzen gastatzen duzuna behar duzu".

**Zein egitasmo duzu esku artean?**

Uda honetan Marmaris Bat itsasontzian itsas pilotu izateko, astebeteko ikastaroa oporraldi batean uztartzeko asmoa dut. Hau da, ikasten duten bitartean gure itsasertzeko portuak eta herriak bisitatuko dituzte. Gure itsasontzian lo egin, gosaldu, teorikoa ikasi, praktikak egin, eta portuz portu, herri bakoitzeko gastronomia eta giroaz gozatuko dute. Informazio gehiago nahi izanez gero nire web gunean begira daiteke: www.probanza.es.













# Anima hadi Martxaundiren V. aldira!

Galtzaundi Euskara Taldeko kultura sailak, bailarako musika talde eta bakarlari hasiberriei, deia luzatzen die Martxaundiren bosgarren edizioan proiektua aurkeztu eta bertan parte har dezaten.

Egitasmo honek, eskualdeko musikari gazteei musika munduan lehen urratsak emateko aukera eskaintzea du helburu. Aurreko lau edizioetan egitasmoak izan duen arrakasta ikusirik, 4 urteko maiztasunari jarraituz errepikatuko dugu aurten. Deabruak teilatuetan, Marruma, Jone... bezalako taldeek Martxaundin egin zituzten lehenengo pausoak. CDaren grabaketa udaberrian egingo da eta udazkenean izango da aurkezpena.

**Baldintzak:** euskaraz abestea eta kontratu diskografikorik ez izatea dira proiektuan parte hartzeko baldintza bakarrak.

**Izen ematea:** Galtzaundi Euskara Taldea (Nafarroa etorbidea, 6 behea, Tolosa).
Telefonoz 943 655004.
Emailez: kultura@galtzaundi.com

**Epea:** apirilaren 20

galtzaundi
euskara taldea

# Kultur egitaraua

## Martxoak 12
Idoia Sanchez
ALKIZA
17:00etan liburutegian

## Martxoak 14
Pirritx eta Porrotx
TOLOSA
Leidor antzokian
6€ko sarrerak
Bi saio: 16:30etan 18:30etan
Sarrerak salgai: Leidorren

## Martxoak 26
Idoia Sanchez
LIZARTZA
17:15etan liburutegian
Ipuin Kontalaria
OREXA
18:30etan elkartean

## Martxoak 7
Kultur Errota
ANOETA
18:00etan pleno aretoan
ZENBAT GARA ANTZERKI TALDEAREN
Ino, ino, ino, badator Bonbardino

## Apirilak 2
Film Laburren zirkuitua
TOLOSA
20:00etan Kultur etxean
Zinema euskaraz








galtzaundi
euskara taldea




# Bikainak izan dira!



Aurtengoak ere joan dira, baina aho zapore ona, bikaina utzi digute. Aspaldiko urteetan ez bezala, eguraldia primeran portatu da Tolosako Inauteriekin, eta kolektorearen obrak ez dira oztopo izan festa giroaz gozatzeko. Beste urte batez, kolorez eta irudimenez jantzi da Tolosa. Beste urte batez, Inauteri hauek, munduan bakarrak direla frogatu dute tolosarrek.

Ostegun gizenean, eguerdiko 12:00etan lehertu zen Inauteriei hasiera eman zien suziria, Tolosako Plaza Zaharreko zeru gainean. Kabi Alai Elkarteko korporazioak, aurten 25. aldiz pregoia irakurri eta txupinazoa bota dutenak, kolektorearen obra hartu zuten ahotan Udaleko balkoitik irakurritako pregoian. Obra hau ordea ez da oztopo izan Inauteriez gozatzeko, nahiz eta “Kolektorerik ez!” esan duenik egon den aurtengo Inauterietan.

Ostiral meheko Arpegi taldearen jaialdian, leporaino bete zen Leidor beste behin. Zaldunita bezperan, urtero bezala, mozorroturik etorri zen despistaturik ez da falta izan.




Eta zer esango dugu Zaldunita egunaz! Tolosar eta eskualdeko herritar askori kostako zaio egun hau ahazten. Rondilla kalean, Nafarroa Etorbidean, Oria Kalean, eta Foruen Etorbidean karroza harrigarriak ikusi ahal izan genituen. Aurten gainera, inoiz baino karroza gehiago atera dira Tolosako kaleetara. Suhiltzaileak, Gospel dantzariak, Bollywood-eko aktore eta aktoresak, mojak, rock talde famatuak... denetik izan zen. Asteartitan berriro egon zen karroza hauek ikusteko eta eurekin festa giroan murgiltzeko aukera, agian, igandean baino lasaiago, jendetza ibili baitzen egun honetan Tolosan. Eta zer esanik ez Astelehenitan. Arimarik ere ez zen kabitzen kaleetan. Denak egon ziren aisialdi taldeek prestatutako ikuskizunei begira.

Bikainak izan dira bai. Beti esaten den bezala, dagoeneko gutxiago falta da 2010eko Inauterietarako. Baina bitartean, nostalgikoentzat argazki hauek atera ditu Galtzaundik.

# Martxoaren 6tik 20ra arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

››› **Martxoaren 21era arte:** SIDA/IHESA. 8 artista 8 hausnarketa izeneko erakusketa, Medicus Mundiren eskutik.

››› **Martxoaren 29ra arte:** Oteiza Tolosan. "Oteiza, bizirako proiektua" erakusketa, + OTEIZA Toloasan atal berezia + ikus-entzunezkoa.

## Z I N E A

### LEIDOR

››› **Martxoak 6:** Lo mejor de mi, 22:30ean.

››› **Martxoak 7:** Txoriburuak euskarazko haurrentzako filma 17.00etan. Whale Rider filma 19:30ean eta 22:30ean.




››› **Martxoak 8:** Txoriburuak, haurrentzako euskarazko filma 17:00etan. Lo mejor de mi 19:30ean. Estrellas de la linea 22:00etan.

››› **Martxoak 9:** Lo mejor de mi filma 20:30ean.

## IKUSKIZUNAK

### KULTUR ETXEA

››› **Martxoak 6 eta 7.** Ahoz-aho jaialdiko ipuin tailerra, Ana Torrellasen eskutik.

### LEIDOR

››› **Martxoak 13:** Ahoz-Aho jaialdiaren gala, 20:00etan, Asvineneak antolatuta.

## M E R K A T U T X I K I A

### KULTUR ETXEA

››› **Martxoaren 9tik 15era:** Amarotz Auzo Elkartearen eskutik, Nikaraguari laguntzeko.

## BONBERENEA

››› **Martxoak 6:** Xikinkei eta Krilin taldeen kontzertuak 22:30ean.

››› **Martxoak 7:** Udaberri dantza taldearen emanaldia 22:30ean.

››› **Martxoak 13:** Los del gas eta Puro chile taldeen zuzenekoa 22:30ean.

››› **Martxoak 14:** Nekro eta Bocio taldeak zuzenean 22:30ean.

››› **Martxoak 18:** Underdidfectaz eta makulu ken taldeen kontzertuak 22:30ean.

››› **Martxoak 19:** Vendetta eta Stupenda jones taldeak 22:30etatik aurrera.



## ANOETAKO KULTUR ASTEA

››› **Martxoak 5:** Ikastolako ikasleen irudi proiekzioa Nazioarteko Emakumearen egunaren inguruan landutakoaz. Arratsaldeko 17:30ean Ikastolan.

››› **Martxoak 6:** Zuhaitz eguna: Ikastolako LH5 eta LH6ko ikasleek zuhaixkak landatuko dituzte Iturtxulon, 15:30etatik 17:00etara. Gaueko 22.00etan, Ezker eskuma antzezlana Glu Glu taldearen eskutik, udal aretoan.

››› **Martxoak 7:** Auzolan ekimena. Plazan elkartuko dira 09:30ean, Laxarbe erreka-

KEY·LAN
SARRAILGINTZA
Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa
Donostia: San Martin, 16 — 943 425 886 — 943 420 187
Donostia: Garibai, 8 — 943 420 259 — 943 430 947
Tolosa: Rondilla, 11 — 943 670 615 — 943 671 149
• Gortinak
• Edredoi nordikoak
• Mantak (bat erosita beste bat opari)
• Ohazalak
• Alfonbrak
etab.

Arteka
ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

TINDATEGIA
KATZ
Laskorain kalea · TOLOSA
Tel.: 943 652 618

kutxa

ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK
Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

ren ingurua garbitzeko. 10:00etatik 11:30etara erlaxazio saioa kiroldegian. 18:00etan, haurrentzako ikuskizuna Udal aretoan: Ino Ino Ino... Badator Bonbardino emanaldia, Ane Monna, Oskoloa eta Karramarroi taldearen eskutik.

## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA ANOETAN

››› **Martxoak 8:** 10.00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara, xake txapelketa kiroldegian. Eguerdiko 12:00etan, txistularien kalejira herrian zehar. 13:00etan, Loatzo Musika Eskolako trikitilarien kalejira. 13:30ean, trikipoteoa. 14:30ean, bertsobazkaria jubilatuen tabernan, Amaia Agirre eta Maialen Arzallusekin.



## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA ALKIZAN

››› **Martxoak 8.** Afaria herriko ostatuan, 21:00etan.


**Tolosaldean**
**IKASTN**
**Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza**

# Ikastaroak

| | | |
|---|---|---|
| Nominak eta Gizarte Segurantzako eragiketa informatizatuak | 2009/03/09 | 30 ordu |
| Testu editorea, kalkulu orria eta data basea (hastapena) | 2009/03/09 | 40 ordu |
| Komunikazio trebetasunak | 2009/03/10 | 32 ordu |
| Natur baliabideak eta garapen turistikoa | 2009/03/12 | 6 ordu |
| Adimen-minusbaliatuei arreta | 2009/03/16 | 200 ordu |
| Farmaziako saltzailea | 2009/03/16 | 200 ordu |
| Laguntza espezializatua Alzheimer dutenei | 2009/03/23 | 200 ordu |

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitez harremanetan:
Webgunea: www.ikastn.com
Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com

www.ikastn.com



Jarri zure publizitatea
**Galtzaundin**
943 655 004 - publizitatea@galtzaundi.com



URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK
Korreo, 39
Tel.: 943 671 414
20400 TOLOSA
Gipuzkoa


## *Guardiako* farmaziak
### MARTXOA

**Ostirala, 6**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
**Larunbata, 7**
Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
**Igandea, 8**
Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
**Astelehena, 9**
Santamaria I.(Nafarroa etorb.2) Tolosa
**Asteartea, 10**
Tolosa Mª Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
**Asteazkena, 11**
Echeveste, J.M. (Gernikako arb. 3) Tolosa
**Osteguna, 12**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
**Ostirala, 13**
Ugarte Mª Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
**Larunbata, 14**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
**Igandea, 15**
Olarreaga J.(korreo kalea, 2) Tolosa
**Astelehena, 16**
Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
**Asteartea, 17**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
**Asteazkena, 18**
Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
**Osteguna, 19**
Ugarte Mª Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
**Ostirala, 20**
Tolosa Mª Isabel (Nagusia, 7) Tolosa

## *Telefono* interesgarriak

**Alegia-Amezketa-Abaltzisketa-Albiztur**
Osasun zentroa . . . . . . . . . . 943 653 212
**Altzo**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 654 737
**Anoeta-Alkiza-Hernialde**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 652 339
**Baliarrain**
Medikua . . . . . . . 943 889 003 (asteazk.)
**Berastegi-Elduain**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 683 361
**Bidegoian**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 681 134
**Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu**
Osasun etxea . . . . . . . . . . . 943 672 411
**Ikaztegieta**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 653 329
**Irura**
Osasun zentroa . . . . . . . . . . 943 690 720
**Tolosa**
Anbulatorioa, larrialdiak . . . . 943 650 931
San Esteban, hitzordua . . . . 943 006 800
Gernikako Arbola,hitzor . . . . 943 006 900
Amarozko dispensarioa . . . . 943 672 637
Asunzion klinika . . . . . . . . . . 943 675 799
(larrialdiak) . . . . . . . . . . . . 943 675 390
San Kosme San Damian
geriatrikoa . . . . . . . . . . . . . 943 672 932
Udaltzaingoa . . . . . . . . . . . . 943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi). . . . . . 943 650 016
Ur zerbitzuak (aberiak). . . . . 639 352 156
Iurreamendi egoitza . . . . . . . 943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzaileak . . . . . . . . . . . 112
DYA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 672 536
Gurutze Gorria . . . . . . . . . . 943 674 888
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 943 651 425
Ertzantza . . . . . . . . . . . . . . 943 673 022
Tolosa Gasa . . . . . . . . . . . . 943 675 320
**Lizartza**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 682 077
**Orendain**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 655 595
**Orexa**
Medikua . . . . . . . . . . . . . . . 943 682 228

## Muxu- -truk

**Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora**

### LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeko. **671 44 66 15**

### ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**
- Ikasle bat, **pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. 627834993.
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

### SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipe 18.000 euro. **629 52 51 50.**
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669.**
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km)** salgai 617 863 669
- **Espace bat** saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858

# HOROSKOPOA

MARTXOAREN 6TIK 20RA ARTEKO AURREIKUSPENA



## ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Inoiz ez da une egokia izango, ia ezinezkoa baita faktore guztiak alde izatea. Bizitza erabakitzea da, eta zuri, atzera edo aurrera erabakitzeko garaia iritsi zaizu.



## TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Aste hauetan paper kontuak zuzentzea egokituko zaizu eta honek buruhauste bat baino gehiago emango dizkizu. Izan pazientzia.



## GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Lagun horrekin tira-bira bat izango duzu. Aspalditik ari zen egosten zuen haserrea. Gauza hauek hitz eginez konpontzen dira. Harrotasuna irentsi eta saiatu beharko zenuke.



## CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Zortea ez da zure alde egongo aste hauetan. Arazoak izan ditzakezu autoa, etxeko elektrizitate tresna edo bestelako ondasun materialen batekin.



## LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Ezusteko gastu bat izango duzu. Zure ekonomiarentzat ostikada dexentea izango da hau. Eguneroko gastuak murriztu beharko zenituzke hilabete bukaerara iritsi nahi baduzu.



## VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Oso ondo dago zure arazoak kontatzea, baina entzuten ere ikasi beharko zenuke. Barruak askatzeko beharrean dago. Keinu hori eskertu egingo dizu.



## LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Osasunez pattal antzean ibiliko zara. Nekea nabarituko duzu. Ahuldadetik ateratzeko, bitamina batzuk hartu beharko zenituzke. Bikotekidearekin une goxoak.



## SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Berriro frogatu ahal izango duzu damuak ez duela ezertarako balio. Gehienez barkamena eska diezaiokezu. Zaindu, hotzeria harrapatzeko arriskua izango duzu.



## SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Bikotekidea baduzu, inoiz baino hobeto egongo zara berarekin. Bikotekiderik izan ezean, erlazio bat hasteko aukeran egongo zara. Egin kasu bihotzari.



## CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Ezustean harrapatuko zaituen aitorpen bat egingo dizute. Honek harro sentitu araziko zaitu alde batetik, bestetik ordea, buruhausteak ekarriko dizkizu. Aspaldiko lagun baten bisita.



## AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Zuregan ez da ohikoa, baina egun hauetan nostalgiko egongo zara. Ahaztu pasatakoa eta eutsi gaurkoari, bestela trenak harrapatuko zaitu. Bizkarreko minak izarrak ikusi araziko dizkizu.



## PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Gogoko dituzte zure istorio eta anekdotak, baina bere neurrian. Aspalditik zor zizuten hori jasoko duzu. Hau lagungarria izango zaizu, gastuz beterik datorren martxoari aurre egiteko.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

# uribe

Higiezin kudeaketa

# Etxeak, etxebizitzak, lokalak, garajeak eta pabilioiak

TOLOSA. Ref 552 SAN BLAS AUZOA ETXE UNIFAMILIAR PAREGABEA 600$m^2$ eta 1000 $m^2$ko lorategia.

Ref 576 IURRAMENDI IBILTOKIA etxe ADOSATUA 3 pisukoa estreinatzeko.

TOLOSALDEA, etxe paregabea pistinarekin.

Ref 529 ALTZO, etxea 150$m^2$ hiru solairutan eta 135 $m^2$ko lorategia. Altzariekin estreinatzeko.369.625 €

Ref 592 ERREZIL hainbat, berrituta eta eraberritzeko.

Ref 598 BEIZAMA baserri zoragarria, 480$m^2$ eta 60.000$m^2$ko lur-saila. 500.000 €

ELDUAIN: DUPLEX baserri berrian, garajea eta lorategia. 345.582 €

Ref 647 eta Ref 720, IKAZTEGIETA 2 LANDA-ADOSATU eraberritzeko, 144.000 € eta 174.000 €

Ref 735 eta IKAZTEGIETA, Etxe adosatua. Eraikin berria Primerakoa, Altzariekin 409.000 €

## NAFARROA

Ref 498 LEKUNBERRI-ERDIA, etxe eguzkitsua, etxebizitza handia, 2 lokal...

Ref 641 LEKUNBERRI, unifamiliarra 163$m^2$koa, 480.810 €

GORRITI erdigunean eraikuntza berria. 372.625 €

## TOLOSA

Ref 723 FORUEN ETORBIDEA NAFARROA ETORBIDEAREKIN IZKINA, ALTUA 133 $m^2$. parkeko bistak.

Ref 642 FORUEN ETORBIDEA - zoragarria 200$m^2$ altua eta erabat kanpora begira 751.265 €.

Ref 756 GERNIKAKO ARBOLA 180 $m^2$ + TERRAZA. 2 sarrera 799.345 €.

Ref 492 GUDARI kalea, zoragarria 150$m^2$ altua eta kanpokaldera. Garaje itxiarekin 522.000 €.

Ref 214 ZUMALAKARREGI etxebizitza 150$m^2$koa altua bistak ibaira 462.800 €.

Ref 401 SAN FRANTZISKO 160$m^2$ balkoi zabalak garajea eta trastelekua 616.000 €.

Ref 740 SAN IGNACIO, 135 $m^2$, pisu zoragarria altua 2 fatxada. 414.700 €

Ref 659 ARABA ETORBIDEA, paregabea 4 gela. Garajea eta trastelekua 342.600 €

Ref 752 BATX ZALDIBIA, 96 $m^2$ altua-igogailua 325.000 €

Ref 554 GIPUZKOAKO ENPARANTZA, altua 90,29 $m^2$ 325.000 €

Ref 590 TRIANGULOAN ERAIKIN BERRIA 1,2,3 gela, 270.456 €tik

Ref 652 ALLIRI 128$m^2$ terrazarekin, garajea trastelekua . 459.775 €

Ref 28 LETXUGA kalea igogailua 2 gela. Estreinatzeko 228.386 €

Ref 419 SAN FRANTZISKO Eraikin-notaria, ESTREINATZEKO 90 $m^2$ eta trastelekua.

Ref 736 ZUMALAKARREGI 90 $m^2$ apartekoa 312.525 €

Ref 442 SAN FRANTZISKO eraikin berria DUPLEXa 95 $m^2$ eta GARAJE itxia.

Ref 616 ORIA kalea, sukaldea egongela 2 gela komuna eta terraza. 280.000 €

Ref 395 LOPEZ MENDIZABAL Altua 110 $m^2$koa GARAJEA eta TRASTELEKUA.

Ref 460 NAFARROAKO ETORBIDEA 91$m^2$ garajearekin NAFARROAKO ETORBIDEA 88 $m^2$ terrazarekin.

Ref 689, Ref 717 Ref 721 PLAZA BERRIAN ERAIKIN BERRIA, 1, 2, 3 gela+trastelekua

Ref 586 IURRE 86 $m^2$ GARAJEA ETA TRASTELEKUA 402.680 €

Ref 421 RONDILLA 65$m^2$, sukaldea egongela 2 gela komuna, balkoiak, 276.465 €

Ref 624 LARRAMENDI 4 gela sukaldea, egongela, 2 komun, trastelekua NEGOZIATZEKO

Ref 646 IURRAMENDI, 76$m^2$ eta terraza 30 $m^2$. 282.500 €

Ref 490 GORRITI, 2 gela eta egongela. Trastelekua eta Garajea 279.500 €

Ref 412 BIZKAI KALEA (sputnis), duplexa 82$m^2$ y trastelekuak. 276.465 €

Ref 651 BIZKAI KALEA 85$m^2$ bikaina 270.455 €

Ref 585 BIDEBIETA 70$m^2$, altzariekin sartzeko moduan. 228.400 €

Ref 541 LEITZA kalea hormigoizkoa, 53,65 $m^2$ izkina 186.000 €

Ref 653 EMPERADOR erabat berritutako eraikina eta gaurkotua. Igogailua. Paregabea 2 gela 228.385 €

Ref 531 - 532, KALE NAGUSIA, 1, 2 gela. Sartzeko, 177.300 €tik

SANTA MARIA, 4en PISUA berritzeko 58 m2. 123.800 €

Ref 757, HERREROS, 62 $m^2$ berrituta 2 kale, 192.000 €

C/ SAN JUAN, AMAROZ, HAINBAT ETXEBIZITZA SARTZEKO MODUAN. Ref 627, Ref 595, Ref 535

## IBARRA

Ref 555 ARANZAZUKO AMA zoragarria, 80$m^2$ terraza GARAJE itxia. 323.045 €

Ref 593 MAESTRO GURIDI 90 $m^2$ kanpokaldera terraza. 228.500 €

Ref 637 SAN IGNACIO igogailua. 74,58$m^2$. 3 gela HAINBAT 246.000 €

Ref 613 - 549 JULIAN GAYARRE hainbat eguzkitsuak. Sartzeko. 216.365 €tik

Ref 660- ARGINDEGI, sartzeko, gela 1 105.177 €

Ref 662 EUSKALHERRIA, 90 $m^2$ garaje lokala. 252.425 €

Ref 755 C / EUSKALHERRIA hasieran 82 $m^2$ 252.425 €

## BERROBI

Ref 573 ELIZA ONDOAN, etxebizitza zoragarria 87,50 $m^2$ eta ganbara 231.390 €

## BERASTEGI

ERAIKIN BERRIA, ESTREINATZEKO, sukaldea ekipatuta, gela 1. 96.162 €, 3 gela 216.365 €

## ANOETA

Ref 320 SOLKORRE kanpokaldea eta eguzkitsua. 258.435 €

Ref 654 IDIAKAITZ etxebizitza zoragarria 3 gela, terraza, aparkatzeko zonalde ona 219.700 €

## IRURA

Ref 658 ETXEZARRETA AUZOA 3 gela, terraza, Garaje itxia eta trastelekua 294.000 € eskaintza gehiago: Ref 614, Ref 610, Ref 489.

## ALEGI

Ref 620 y Ref 563 LARRAITZ AUZOA hainbat eskaintza.

Ref 701 BIDEBARRIETA, zoragarria 2 gela GARAJEA eta trastelekua 228.385 €

## LOKALAK:

SALGAI: RONDILLA-TRIANGULO 100 $m^2$ 2 solairutan.

SALGAI: ZUMALAKARREGI 300 $m^2$ (jatetxea, sagardotegia....)

SALGAI - ALOKAIRUA RONDILLA 200 $m^2$ su bajuekin aukera askoko eskaparatea.

ALOKAIRUAN LOKALAK ETA GARAJEAK Web-orrian ikus.

## PABILOIAK:

Ref 678 BILLABONA, IRURA BIDEAN, solairu batean 600 $m^2$ + 80$m^2$ itxia. 2 ate ZATIGARRIA. 629.380 €

Ref 737 BILLABONA, IRURA BIDEAN, 290 $m^2$, solairu bakarra 300.000 €

Ref 636 TOLOSA, SAN ESTEBAN, 325 $m^2$+100 $m^2$ solairuartea. instalatuta, 288.500 €

Ref 718 TOLOSA, DONOSTIAKO ETORBIDEA, 330 $m^2$+90$m^2$ solairuartea. 216.365€

Ref 679 TOLOSA, USABAL, ALOKAIRUA 330 $m^2$ beheko solairua, 2 ate 1500 €

Ref 63 IBARRA, LEABURUKO ERREPIDEA 560 $m^2$en solairua, altuera 5 m 280.000 €

Ref 387 BELAUNTZA, OKOBIO 361 $m^2$ beheko solairua + bulegoa 24 $m^2$ 332.000 €

Ref 388 BELAUNTZA, OKOBIO 500 $m^2$ beheko solairua. Altuera ona 510.860 €

Ref 694 BELAUNTZA, OKOBIO, 264 $m^2$ Argia eta eguzkia 228.400 €

Ref 329 BELAUNTZA, SAN JOSE, 270 $m^2$ beheko solairua altuera ona ALOKAIRUA 700 €

San Frantzisko Ibiltokia, 25 • TOLOSA GIPUZKOA • Teléfono 943 655 515


RENAULT
Polígono Industiral s/n 20270 Anoeta
Telf. 943 652 843 - 943 652 845
AUTOBERRI
0 kilometro
0 kilometro
RENAULT Grand Espace Emotion
0 kilometro
Prezioa: 27.300
0 kilometro
7 eserlekukoa
Prezioa: 11.500
Prezioa: 9.500
bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran
Kontsultatu beste motore eta ekipamentu aukerak. Unitate mugatuak.